# AGINTARIAK ETA LANGILERIA

## Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

### EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILA

## 4112

*AGINDUA, 2024ko abuztuaren 29koa, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburuarena, Ekonomia, Lan eta Enplegu Saileko behin-behineko langile bat izendatzeko dena.*

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 28.1 artikuluan, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 19.1.a) eta 30.3 artikuluetan eta aplikagarria den gainerako araudian ezarritako ahalmenez baliatuz, bat etorriz Funtzio Publikoko Zuzendaritzak eman duen txostenarekin, eta horretarako aurrekontu-kreditua dagoenez gero, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Enrique José Ramos Vispo jauna Ekonomia, Lan eta Enplegu Saileko Enplegu eta Inklusio arloko aholkulari izendatzea, zuzendari mailarekin (kodea: 5322; dotazioa: 1).

Bigarrena.– Interesdunak aholkularitza-eginkizunak emango dizkio Ekonomia, Lan eta Enplegu Saileko titularrari.

Hirugarrena.– Interesdunak eskubidea izango du, horretarako legez eskatzen diren baldintzak betetzen baditu, Goi-kargudunen Lansariei buruzko urriaren 28ko 14/1988 Legearen 3.1 eta/edo 5.1 artikuluetan jasota dauden aurreikuspen guztiak edo haietakoren bat aplika dakizkion.

Laugarrena.– Izendapen honek 2024ko irailaren 4tik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Era berean, agindu honen bidez ezartzen den zerbitzu-harremana automatikoki azkenduko da aholkulariak betetzen duen konfiantza- edo aholkularitza-funtzioaren hartzailea den agintariak kargua uzten duenean, hargatik eragotzi gabe lehenago ere edozein momentutan ezeztatzeko dagoen aukera.

Bosgarrena.– Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke organo honi, hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko abuztuaren 29a.

Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburua,
MIGUEL TORRES LORENZO.